

**Idatzi hau sinatzen dugun herritarrok, ondorengo eskaria egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:**

Aiaraldeko herritarrok kezka bizi dugu gure eskualdeari dagozkion Osakidetzako zerbitzuen egoera. Azken urteotan ikusi dugu guri dagokigun Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuko zerbitzuak (Barrualde-Galdakao ESI) murrizten eta ahultzen joan direla; eta ez soilik opor sasoietan. Erabat normalizatu da azken urteotan Laudioko zein Amurrioko Etengabeko Arreta Guneetan mediku gabe jardutea.

Ikusi dugu baita ere, behin baino gehiagotan, gure eskualdeari zerbitzua eman behar zion anbulantzia medikalizatua mediku gabe egon dela, eta Barrualde-Galdakako beste anbulantzia medikalizatua ere egon dela medikurik gabe. Kasu horietan, ESI guztia egoera larrietarako zerbitzu egoki gabe geratu da. Halaber, oso ohikoa bilakatu da Laudioko anbulantzia medikalizatua beste barruti batzuetan sortzen diren larrialdiei erantzuten egotea.

Azken bi urte hauetan bereziki, osasun zerbitzuen egoera asko okertu da. Eragin handia izan du herritarron arreta kalitatean, eta ez onerako. Osasun profesionalen lan baldintzak okertzen joan dira, osasun ekipoak hankamotz aritu dira, eta txandak ez dira estali. Guzti hau, gainera, ez da soilik Zaintza Intentsiboetarako Unitate mugikorretan edo Etengabeko Arreta Guneetan gertatu, eta ez da soilik Laudioko arazoa izan. Eskualdeko gainontzeko herrietan ere sufritu dugu Lehen Mailako arretak izandako gainbehera, eta osasun publikoaren beste esparru batzuetan ere nabaritu da (Buru Osasunerako Zentroko zerbitzuan, kasu).

Halaber, ez dugu ahaztu behar jada Laudion bi heriotza izan ditugula. Agian, osasun zerbitzuak %100ean egonda ere gertatuko lirateke ezbehar horiek, baina osasun zerbitzuak uneoro egon behar dira ehuneko ehunean; eta larrialdietarako prestatuak dauden zerbitzuek garaiz eta behar den dotazioarekin artatu behar dituzte larrialdiak. Ezin dute zalantzarik eragin, eta tristea da pentsatzea ea zer gertatuko litzatekeen egoera beste bat izango balitz.

Ikusita orain arte ez dela neurri zuzentzailerik hartu, eta ikusita Aiaraaldeko egoera gero eta ahulagoa dela Osakidetzako errekurtsioei dagokionean, idazki hau sinatzen dugun herritarrok ondorengo eskariak egin nahi dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

1. Audio eta Amurrioko Etengabeko Arreta Guneetako ordutegi eta txanda guztietan bermatzea beharrezkoak diren espezialitate eta kategoria guztietako osasun profesionala, baita medikuak ere. Era berean, eskualdean dauden Osakidetzako gainerako azpiegituretan ere behar diren giza baliabide guztiak uneoro bermatzea eskatzen dugu.
2. Audioko anbulantzia medikalizatuko (SVA) txanda guztietan beharrezkoak diren osasun profesional guztiak bermatzea, medikuak barne.
3. Osakidetzaren oinarritzko asistentzia-zerbitzuak bermatzea exijitzen dugu, herritarrok zerbitzu horietarako eskubidea baitugu.
4. Eskatzen dugu Buru Osasunerako Zentroko arreta arina izatea, psikiatra zein psikologoagatik artatuak izateko itxaron zerrendak murriztuz. Buru osasun arazoak dituzten pertsonek eskubidea dute kalitatezko arreta jasotzeko.